



AKTA
ELANKIDETZA - LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL
AGENTZIA
KONTSEILU ERREKTOREA

Agurra: Ander Caballero eta Javier Cortésekin saioa hasi dute, 2025eko maiatzaren 27an, 11:30ean, eta bertaratuei agertu izana eskertu diete.

Bertaratuak:

Presidente moduan:

- Ander Caballero, Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkari nagusia (online)

Batzordekideak:

- Asier Aranbarri, Lehendakaritza / Eusko Jaurlaritzako Gizarte Berrikuntza eta 2030 Agendako zuzendaria (online).
- Olatz Bolinaga, Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria (online), Lorea Bilbao ordezkatzen.
- Iván Bolinaga, Ogasun eta Finantza Saileko Programa eta Azterlanetako aholkularia (online), José Enrique Corchón ordezkatuz.
- Josu Urrutia Beristain, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren ordezkarik gisa, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen partetik – Mundukideko zuzendaria
- Elsa Fuente, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren ordezkarik gisa, Euskadi UNICEF koordinakundea – GGKE-en Koordinakundekoak ez diren beste eragile sozial batzuen aldetik (online)
- Maitane Ipiñazar Miranda, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasuneko eta Garapenerako lankidetzako Batzordearen ordezkarik (online)

Kontseiluko idazkaria:

- Javier Cortés, eLankidetzako zuzendaria eta Kontseilu Errektoreko idazkaria

Era berean, landu beharreko gaietan laguntzeko bertaratu dira:

- Cristina Ocio, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren (aurrerantzean, KEB) auditorea
- Conchi Hierro, Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna
- Iker del Río Lahidalga, Lankidetzako teknikaria, Lankidetzako Teknikoko Zerbitzuaren arduradunaren funtzioak aldi baterako esleituta
- Maite Garmendia, Lankidetzako teknikaria, Lankidetzako Estrategikoko Zerbitzuaren arduradunaren funtzioak aldi baterako esleituta.
- Pilar Díez Arregui, Lankidetzako teknikaria
- Edurne Bengoechea, Generoko eta Garapenerako teknikaria
- Gregorio Domínguez, aholkulari juridikoa, zerbitzu juridikoaren funtzioak aldi baterako esleituta.



- Amelia Rubio, administraria, Zuzendaritzako idazkariaren funtzioak aldi baterako esleituta.

Gai-zerrenda:

1. 2025eko martxoaren 14an egindako azken saioko akta irakurri eta onartzea.
2. 2024ko Urteko Kontuak onartzea.
3. URA-Uraren Euskal Agentziaren eta eLankidetzaren arteko lankidetzaz hitzarmena onestea, uraren kanonaren % 5 kudeatzeko.
4. Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurrean jarduteko eLankidetzaren protokoloaren gaineko informazioa.
5. Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzen deialdiaren informazioa, ekintza humanitarioko proiektuen modalitatean (PRE).
6. Eskariak eta galderak.

1. 2025eko martxoaren 14an egindako azken saioko akta irakurri eta onartzea

Aho batez onartu da.

2. 2024ko Urteko Kontuak onartzea

Cristina Ociok 2024ko urteko kontuak errepasatu eta azaldu ditu, horien laburpena eginda, eta aipatu du orokorrean bat datozela aurreko urteetakoekin, azaltzeko ezer berezirik gabe. Halere, puntu hauek aipatu ditu:

- Emandako Dirulaguntzen Hartzekodunen Kontu Pasiboan 1.100.000 € inguruko saldoa dago. Saldo hori zero izan beharko litzateke. Gertaera positibo moduan, urte honetan ez da gehitu zenbatekorik. Oraingo saldoa urte hauetan emandako dirulaguntzei dagokie: 2018 (115.000 €), 2022 (762.000 €) eta 2023 (253.000 €). Zifra horiek ez dira zehatzak, biribildu egin dira.
Gomendatzen du berrikustea zer dirulaguntza gauzatuko diren, eta gainerakoa itzultzea, antzintasuna dela-eta.
- Jasotako transferentzien artean 83.000 € inguru daude ibilgetuko eraikuntza-lanentzat. Ez badira erabiliko, itzuli egin beharko lirateke.
- Gainera, gomendatzen du urteko kontuak apirilean sinatzea (epe legala) eta martxoan KEBi bidaltzeko zirriborroak izatea.

Aurrekoa ikusita, Kontseilu Errektoreak aho batez onartu ditu.

3. URA-Uraren Euskal Agentziaren eta eLankidetzaren arteko lankidetzaz hitzarmena onestea, uraren kanonaren % 5 kudeatzeko

Maite Garmendiak hitzarmen hau egin den markoa azaldu du, baita haren eduki nagusia ere. Azaldu du 2008tik, Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez,



uraren kanonak jasotakoaren % 5 hegoaldeko herrialdeetan ur eta saneamenduko proiektuak egitera bideratua dagoela. Hasieran funts horiek URAk —hark biltzen du kanona— Nazio Batuen Garapenerako Programari bidaltzen zizkion, esparru horretako hainbat proiektu egiteko. Halere, 2015etik aurrera, Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez, funts horiek eLankidetzari transferitzen dizkio URAk.

URaren eta eLankidetzaren artean uraren kanonaren % 5 kudeatzeko harreman-markoa ezartze aldera, 2015ean, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten bi agentziek, eta 2018an aldatu zuten partzialki. Hitzarmen horren indarraldia 2015ean amaitu zen, eta beste hitzarmen bat egitea erabaki dute URAk eta eLankidetzak, bi erakundeek uraren kanonaren % 5 kudeatzeko zer baldintzarekin lan egingo duten arautzeko. Beste auzi batzuen artean, ezarri da funtsen norakoari buruzko erabakia Batzorde Mistoan batera egingo dela, eta URAk laguntza teknikoa eman ahal izango dio eLankidetzari ur eta saneamenduaren alorrean hark laguntzen duen proiektuetan. Lankidetzaz hitzarmenak lau urte iraungo du, sinatzen denetik, eta epea luzatu ahal izango da, lau urte gehiagora arte.

Conchi Hierrok jakinarazi du hitzarmenaren aurrekontu-partida KEBek adierazita sailkatu behar dela berriro. Orain arte uraren kanonaren transferentzia eLankidetzako Aurrekontu Baliabideetan erregistratzen zen, Kapitaleko Eragiketen Transferentzien eta Dirulaguntzen 7. kapituluan, eta Eragiketa Arruntetarako Transferentzien eta Dirulaguntzen 4. kapituluan egin behar da. Beraz, bai URAk, bai eLankidetzak aurrekontua aldatu behar dugu, birsailkapen hori jasotzeko.

Aho batez onartu da.

4. Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurrean jarduteko eLankidetzaren protokoloaren gainerako informazioa

Edurne Bengoecheak hura azaltzeko laburpena egin du. Elaborazio-prozesua 2021-2024 Genero Berdintasunerako I. Plana (luzatua) ezartzeko esparruan kokatzen da, pertsonak kudeatzeko IV. ardatzean. Prozesu parte-hartzaile baten emaitza izan da, eta horretarako plantilla osoa prestatu dute, barneko Talde Eragile bat sortu da, baita eztabaida eta debaterako taldeak ere, Sortzen aholkulari-enpresaren laguntzarekin.

Dokumentuaren atalen artean nabarmentzen ditugu erakundearen kultura, aplikazio-eremua, prozedura eta erreparazioa. Jada sortu dira dagozkien egiturak, eta aholkularitzako eta batzordeko pertsonak prestakuntza egokia jaso dute. Hauek dira hurrengo pausoak: dokumentua gure webgunera igo, zabaltzea eta sozializatzea, hala barruko nola kanpoko eragileekin. Azkenik, jakinarazten da eLankidetzak parte hartu duela Euskadiko Gazteak Lankidetzaren indarkeria matxista prebenitzeko eta haren aurka jarduteko protokoloan.



5. Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzen deialdia kudeatzea, ekintza humanitarioko proiektuen modalitatean (PRE)

Pilar Diaz Arregik lehenengo hautaketa-batzordearen ondoren onetsitako ekintza humanitarioko proiektuen laburpena egin du, eta bat dator aktan emandako laburpen-datarekin. Lehenengo ebazpenarekin onetsi dira iritsiera-ordenaren arabera baloratutako lehenengo 25 proiektuetatik 23. Esleitutako zenbatekoa 4.599.961,45 eurora igo da, eta gauzatuko dira Afrikan (15 proiektu eta emandako aurrekontuaren % 56,52; hortaz, kontinentearentzat aurreikusitako % 50eko erreserba gainditu da), Ekialde Hurbilean (5 proiektu eta emandako aurrekontuaren % 21,74) eta Latinoamerikan (5 proiektu eta emandako aurrekontuaren % 21,74). Funtsen % 56,53 ahaztutako krisiei bideratuko zaizkie, Europar Batasunak hala definituak (Sahara, Burkina Faso, Kamerun, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Uganda, Libano eta mugikortasun behartua Erdialdeko Amerikan). 16 testuinguru humanitariotatik datozen herritar iheslari, desplazatu edo itzulitakoei hauek emateko ekimenak dira: osasun osoa, elikagaiak, hezkuntza, bizitzeko bitartekoak, eskudirua, babesa eta gaitasunak indartzea. Laguntzak euskal 17 erakundek eta 30 tokiko bazkidek jaso dituzte. Nabarmendu behar da erakundeen % 60k bertakotzat hartzen direla, eta emandako aurrekontuaren % 54 gauzatuko dutela, Gran Bargainek bertako eragileak «as directly as posible» finantzatzeko ezarritako jomuga (% 25) baino gehiago. Gaur gaurkoz, 38,55 euroko soberakina dago, eta baloratzeko 12 eskaera.

6. Eskariak eta galderak

Josu Urrutiak kezka adierazi du El Salvadorreko Lege Batzordearen jokaeragatik, maiatzaren 20an Atzerriko Eragileen Legea onetsi baitzuen, zeinak % 30eko zerga ezartzen baitie gobernuz kanpoko erakundeen donazioei, eta galdetzen du zer ekimen egingo dituen eLankidetzak horren aurrean.

Ander Caballerok eta Javier Cortésekin adierazi dute, kanpoan eta diplomatikoki, era koordinatuan ari direla jarduten har daitezkeen erabakiekin, era zentralizatuan, eta elkarrizketak izanda Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritzarekin, baita Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziarekin ere. Barneagoko mailan, jakinarazi da bilera bat izan dela Euskadiko GGKE-en Koordinakundearekin eta hura osatzen duten erakundeekin, horren ganean ezar daitezkeen neurri posibleak aztertzei, El Salvadorren lan egiten duten erakundeek ahalik eta kalte gutxien jasan dezaten. Halere, erakundeak eta Koordinakundea animatzen ditu proposamen egokiak aurkezteko, horien bideragarritasuna aztertze aldera.

Elsa Fuentek galdetu du nolako parte-hartzea izango duen eLankidetzak Garapenerako Finantzaketari buruzko Laugarren Nazioarteko Konferentzian — Sevillan izango dela aurreikusten da, 2025eko ekainaren 30etik eta uztailaren 3ra bitarte—. Javier Cortésekin azaldu du eztabaidetan presentzia izatea bilatuko dutela, eskualdeko gobernuen testuinguruan, CGLUren bidez —Hiri eta Toki Gobernu



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Batuak— eta Euskadirentzat egokiak diren eragile askoko espazioetan egoten saiatuko direla, Euskadiko lankidetzak foro horretan lekua izan dezan eta bere ekarpenak eraman ditzan. Gogorazten du, gainera, 2030 Tokiko Idazkaritzarekin eta Gizarte Berrikuntzako Zuzendaritzarekin batera lan egin dutela, dirulaguntza bat aurkitzeko, giza garapen jasangarriko. Bestalde, Asier Aranbarrik ere hitz egin du, eta adierazi du ekitaldi paraleloren bat ari direla aurreikusten uztailaren 2rako Sevillan, 2030 Tokiko Idazkaritzarekin batera.

Bestalde, Elsa Fuentek adierazi du UNICEFek bi ekimen paralelo egingo dituela Sevillan, honetan zentratuak: finantzaketaren berrikuntza, haurtzaroa eta nerabezaroa.

Maitane Ipiñazarrek jakinarazi du Eusko Legebiltzarreko Sexu eta Ugalketa Eskubideen Taldeartekoak SEDRA-Familia Plangintzako Federazioaren gonbidapena jaso dutela, eta parte hartuko dutela bai berak, bai Oihana Etxebarrietak.

Azkenik, Asier Aranbarrik Garabiderekin koordinatuta egin duten Ahots Batuak ekimenaren berri eman du. Ekainaren 2an egingo da Tabakaleran, 18. GJH aurkezteko —kultura- eta hizkuntza-aniztasunari lotua—, Euskadiko 2030 agendan gehitzeko.

Eztabaidatzeko gai gehiagorik gabe, Ander Caballerok amaitutzat eman du saioa, eta bertaratu izana eskertzen dizue, 12:30ean.

Sinatuta: Ander Caballero
Presidentea

Sinatuta: Javier Cortés
Idazkaria